

Helmintoak: gorputza luzanga duten eta narrasten diren organismo zelulanitzak

Tegumentua: platelmintoen kanpoko estalkia

- **Ziliatua:** tegumentu zelularra, bizitza askeko platelmintoetan
- **Zilio gabekoa:** tegumentu sintzitala, trematodo eta zestodoetan

Zeloma: Hainbat izaki bizidun gorputz-barrunbea, mesodermotik eratutakoa eta zenbait organoren eraketan parte hartzen duena

Monozoikoak: haien kabuz bizi diren izaki bizidunak

Polizoikoak: kolonietan bizi diren izaki bizidunak

Trematodo baten bizi-zikoa: heldua → arrautza (uretan) → mirazidioa → esporozittoa → redia → zerkaria → metazerkaria → heldua

Mirazidioa: larba igerilaria, elikatzen ez dena eta uretan 24 ordu irauten dituen, ostalari bat (behin-behinekoa) aurkitu arte

Redia: behin behineko ostalari egon ohi den larba luzanga

Zerkaria: forma igerilari gaztea

Metazerkaria: behin betiko ostalarira (ornoduna) infekzioa transmititzen duen forma

Azetabulua: digenea subklaseko trematodoek sabel aldean duten bentosa

Nerbio sistema ortogonal: digenea subklaseko trematodoek duten nerbio sistema, nerbio kordoi longitudinalak dituen, zeharkako eraztunez tarteka konektaturik

Eskistosomak: sexual banatuta dituzten odol trematodo digenetikoak

Kanal kinekoforoa: eskistosoma arrek duten egitura, bertan emea kokatzeko

Espoloia: eskistosomen arrautzek duten hagin moduko egitura

Swimmer's itch: eskistosomiasian, aurretik kontaktua izan bada agertzen den erupzioa gorputzean zehar, fase migratzailean

Katayama sindromea: eskistomiasiarene fase akutuko sukar prozesua, hilabete inguru irauten duena, sukarrak gain arazo gastrointestinalak etab ere ematen dituen